

AZTERKETA BULEGOKO BULETINA

AURKIBIDEA:

1. GREZIAKO HAUTESKUNDEAK
2. BANKIAREN SOZIETATE NAGUSIAREN NAZIONALIZAZIOA
3. LANALDI PARTZIALEKO ENPLEGUA EZ DA HAUTAZKOA
4. BESTE 60,4 MILIOI MURRIZTEA ADOSTU DUTE UPNk ETA PSNk NAFARROAN
5. ETXEBIZITZAKO DEKRETU BERRIA NAFARROAN: EGOERA ALDATZEARI UKO EGITEA
6. PROPOSAMENA: GIZARTE ZERBITZU SISTEMA PUBLIKO, UNIBERTSAL ETA DOHAKOAREN ALDE.
7. MURRIZKETEN AURKAKO MANIFESTAZIO BERRIEN DEIALDIA MAIATZAREN 20 ETA 26RAKO

1. GREZIAKO HAUTESKUNDEAK

Maiatzaren 6an hauteskunde eguna izan zen Grezian. Lortutako emaitzak 1974 urtetik aurrera lortutakoekin aldaratuta oso desberdinak izan dira. Urte horretatik gaur egunerarte gehiengo zuten bi taldeek, PASOK eta Nueva Democracia, gehiengo osoarekin osatzen zuten parlamentua. Urte hauetan zehar bien artean parlamentuaren %70 eta %90 bitartekoa lortzen zuten. Azken hauteskunde hauetan emaitza erabat aldatu da. Aipatutako bi indar horien artean botuen %33a baino ez dute batzen (Nueva Democracia %33tik %19ra jaitsi da eta PASOK %44tik %13ra). Kontutan hartzen badugu Greziako hauteskunde legeak indar gehien duen taldea parlamentuan 50 eserleku gehiagorekin saritzen duela, azken hauteskunde hauetan lortutakoaren arabera parlamentuaren eraketa honakoa litzateke: Nueva Democracia-k 108 eserleku izango lituzke, SYRIZA-k 52, PASOK-ek 41, Greziar Independentieek 33, KKE-k (Partidu Komunista) 26, Golden Down-ek 21 eta Ezker Demokraziak 19. LAOSek ez du eserlekurik lortu. Eskuin muturreko alderdi honek, Papademosen azken gobernuan parte hartu zuten.

SYRIZA, igandeko hauteskundeetan bigarren postua lortuta, koalizio gobernu bat eratzeko arduraduna izan da, Nueva Democracia-k ahalegin horretan porrot egin ondoren.

Syriza-k, koalizio berria lortzeko asmotan, Greziako ekonomia krisi bortitz batera eraman duten neurri gogorrak atzera botatzea proposatzen zuen. Neurri hauek langabeziaren gorakada izugarria ekarri dute, herriaren txirotasunarekin eta milaka enpresa txiki eta ertainen itxierarekin batera. Honek

ere ez du inolako akordiorik lortu Pasok eta ND-kin. Syriza maileguaren memorandoaren indargabetzea, banku publikoaren sorrera eta kanpo zorraren auditoria eskatu zituen bere proposamenen artean. Syrizaren ahaleginen porrotaren ondorioz, Pasoki pasa zitzaion txanda koalizioa eratzeko baina honek ere ez du emaitzik lortu.

Koaliziorako ate guztiak itxita, Greziako presidentek teknokratez osatutako gobernu proposatu zuen baina hau ere ez da lortu eta ondorioz, Greziak hauteskunde berriak ospatuko ditu ekainean.

Bitartean, Europar Batasuneko (Alemaniako gobernu eta Europako Banku Zentrala buru direlarik) eta Nazioarteko Diru Funtzaren xantaia geroz eta handiagoa da. Mehatxua argia da, Greziak ez baldin baditu orain arteko neurriak aplikatzen jarraitzen, jasotzen ari diren "diru-laguntzak" eta eurogunean jarraipena arriskuan jartzen dituzte.

Grezia erronka berri baten aurrean dago. Bi urte igaro dira etengabeko borrokan eta Troiak ezarritako murrizketa bortitzak jasaten. Herriaren oihartzuna entzuteko garaia iristi da, orain arte aplikatutako politiken aurrean erabateko aldaketa emanez.

2. BANKIAREN SOZETATE NAGUSIAREN NAZIONALIZAZIOA

Joan den astean estatu espainiarrak Bankia taldea nazionalizatuko duela ezagutu genuen.

Bankuen Berregituraketa Antolatuaren Fondoak (FROB) Bankiako kapitalaren %45eko zeharkako titulartasuna izango du. FROB-ak BFA-ren (Banco Financiero y de Ahorros) %100a bereganatuko du, bigarren honek

Bankiaren %45a kontrolatzen duelarik. Proposatutako nazionalizazioa 4.465 milioi kapitalean bihurtuz egingo da (zenbateko hori 2010ean Estatuari eskatutako maileguaren zenbatekoarekin bat dator, eta argi zegoen ez zutela itzuliko).

Gobernuak Bankian beste 7.000 milioi euro sartuko dituela uste da, baldintzatutako mailegu baten bitartez ordaintzeko baina seguruenik kapital bihurtuko dena. Honek esan nahi du Bankiak 12.000 milioi euro jasoko ditutela diru-kutxa publikotik (Hezkuntza eta Osasuneko murrizketak 10.000 milioi euro batzen dituzte). Baina hori ez da dena. Azken urteetan Bankiak hainbat diru laguntza jaso ditu jarraian ikusiko dugun moduan:

- 2012ko programaren kargura, BFAk 12.000 milioiko bermea jaso du, 2009ko programaren kargu, Bankia osatzen zuten kutxek 7.500 milioi euroko bermea jaso zuten eta 2008ko programaren kargu beste 15.000 milioi. Berme guztien batura 27.500 milioi eurokoa da. Nahiz eta Estatuak ez duen zenbateko hori ordaindu behar, bere gain hartzen du arriskua.
- 2011n egindako Salmenta Eskaintza Publikoaren bitartez 3.000 milioi euro jaso zituen.
- EBZ-k egindako azken enkantean, Bankiak 25.000 milioi euro eskatu zituen (diru gehien eskatu zuen erakundea) %1eko interesarekin 3 urtetara. 2011ko abenduan egindako enkantean ere 15.000 milioi eskatu zituen.

Behin erakundeak diru guzti hau jaso ondoren Gobernuak onartzen du Bankiak gutxienez

beste 7.000 milioi euro behar dituela (zenbatekoa 10.000 milioi eurorainokoa izan daiteke).

Nahiz eta diru kopuru hori jaso izan, gaur egun Bankiak 31.800 milioi euroko aktibo kutsatu ditu (BPGd-ren %3a).

Azpimarragarria da baita, orain dela pare bat asterarte Bankiako presidente izan den Rodrigo Ratos, 2011n 2,34 milioi euroko ordainsari finkoa jaso zuela (260 aldiz Lanbide arteko Gutxieneko Soldata). Gainera, Bankian 2 urte eman ondoren (2010eko urtarriletik) 1,2 milioi euroko kalteordaina jasoko du dimisioa aurkeztearren.

Onartezina da Gobernuak Ongizate Estatuaren aurka doazen murrizketak aplikatzea eta bestalde bankuari horrenbeste diru ematea.

3. LANALDI PARTZIALEKO ENPLEGUA EZ DA HAUTAZKOA

Lanaldi partzialeko enplegua prekariora da. Enpresari malgutasuna ematen dio, lanaldi osoko enplegua baino gutxiago ordaintzen da, enpresan norberaren igoera mugatzen du eta langabezi prestazioak edo pentsioak jasotzeko zigortu egiten da.


Segidako lan erreformek kontratazio mota hau sustatu nahi izan dute, egoera honetan ordainsaridunen %14,5 dagoelarik. Batez ere, emakumeen enplegua dago egoera horretan. Lanaldi partzian lan egiten duten gehienak emakumeak dira.

Gobernu guztiek esan dute lanaldi partzialeko enplegua bizitza laborala, familiakoa eta pertsonala kontziliatzeko egokia dela (datuen arabera, emakumeena).

Hala ere, oinarrizkoa dena saihesten da. Lanaldi partzialeko enplegua, dituen arazoak zeintzuk diren jakinda, norberak hautatutako aukera bat behar luke. Eurostatek, Europar Batasuneko estatistika institutua, emandako datuen arabera hau ez dela horrela egiaztatzen dute.

Zehazki, estatu espainiarrean lanaldi partzian lan egiten duten pertsonen erdiak ordu gehiago lanegitea nahiko luke. Europar Batasuneko batzbestekoa baino altuagoa da, %20,5a baita. Mota honetako enpleguen arautzea ez da berdina toki guztietan eta estatu espainiarrean dauden gabeziek azaltzen dituzte datu hauek.

Lanaldi partzialeko enpleguarekin desadostasunik handienak Grezian, Irlandan edo Portugalen aurki ditzakegu. Ezaguna egiten zaigun zerrenda bat da. Ondorioa argia da: doktrina neoliberalen oinarrituriko lan eskubideen murrizketen aplikazioak lan prekaritatea areagotzen du eta langileak atsekabe egoeran uzten ditu.



4. BESTE 60,4 MILIOI MURRIZTEA ADOSTU DUTE UPNk ETA PSNk NAFARROAN

Pasa den maiatzaren 11an Barcinaren eta Jimenezen Gobernuak 60,4 milioi eurotako beste murrizketa bat iragarri zuen, 27 milioi

eurotako diru-sarreraren hazkundearekin batera, ekainaren 30 baino lehen martxan jartzeko.

UPN-PSN paktuak zerbitzu publikoen eta Administrazioan lan egiten duen jendearen kontra egin du berriro, azken hauen lan baldintzak okertuz eta prekarizatuz.

Yolanda Barcinak eta Roberto Jimenezek sinatutako akordioaren **lehen puntuak** "hazkunde ekonomikoa eta enplegu sorrera bultzatzeko neurriak du izena.

Atal honek "Nafarroan Ekonomia eta Enplegua Dinamizatzeko Plana" sortzea aurreikusten du, "Enplegu Planeko erakundeekin adostua, eta Moderna Planeko lehentasunak erreferentziatzen hartuta". "Plan" berri honen zereginen artean, elkarrizketa soziala sustatzea, enpresentzako pizgarriak ezartzea, eta enplegu politika aktiboen errefortzua nabarmentzen dira. Guztiak, 20 milioi eurotako gastu aurreikusia duelarik.

Lehen atal honek AHT bezalako hirigintza-proiektuak eta obra publikoak "ahal den guztia arintzeko" konpromisoa biltzen du.

Akordioaren **bigarren atalak** "diru-sarreraren politikari" buruzkoa da, "osasun zentimoa" delakoaren ezarpena nabarmentzen delarik. Hau dela eta, erregai litroa 2,4 zentimo garestituko da, eta 8 milioi eurotako sarrera aurreikusten da.

Honetaz gain, UPNk eta PSNk beraien erara egin duten amnistia fiskala adostu dute, eta errekaruaren %90a eta interesen %20 barkatuko dizkiete errenten aitortpena berandu egiten dizkietenei (14 milioi).

Diru-sarrerak handitzeko beste neurri batzuk tabakoa garestitzea (2 milioi), eta Sozietateen gaineko Zergan egindako aldaketa txiki batzuk izan dira (3 milioi).

Hirugarren atala da murrizketak jasotzen dituen, "gastuen kudeaketa eraginkorra" bezalako izenburu demagogo baten azpian.

Administrazio Publikoan lan egiten duen jendeari, Nafarroako Gobernuak otsailean erabaki zituen murrizketez gain, eta egun mahai orokorrean daudenak, lanaldia 37,5 ordutara luzatzea adostu dute.

Gainera, Barcinak eta Jimenezek Raxoiren Gobernuak oinarrizkotzat planteatutako osasuneko eta hezkuntzako murrizketa guztiak Nafarroan ezartzea erabaki dute.

Zentzu honetan, UPNk eta PSNk sinatutako akordioak "klaseko ikasle kopurua ez handitzeko konpromisoa" du. Baina beste aldetik, espainiar herritasuna ez duten eta apirilaren 30a baino beranduago Nafarroan erroldatu diren etorkinei osasun-txartela kenduko zaiela adostu dute.

Murrizketa hauek Nafarroako egoera ekonomikoa okertu egingo dute, eta prekaritatea handitzea, babes soziala okertu eta langabezia handitzea suposatzen dute. Gainera, murrizketa hauek osasun eta hezkuntza sistemen kalitatearen okertze larria dakartzate.

Gobernuak herritarren txirotxea ekartzen duen politika egiten jarraitzen du, eta era honetan hondamendi sozialera garamatza. Honetarako, eta beste behin, elkarrizketa sozialeko erakundeen eta Moderna Planaren konplizitatea eta laguntza bilatzen du.

Berriz ere, gizarteak behar duen politika neoliberalen aldaketa egiteko aukera galdu da.

5. ETXEBIZITZAKO DEKRETU BERRIA NAFARROAN: EGOERA ALDATZEARI UKO EGITEA

Duela Gutxi Nafarroako Gobernuak Etxebizitza Eskubidearen Legea garatzen duen Dekretu bat egin du.

Bere garaian, ELAk Lege hau aztertu, baloratu eta bere proposamenak egin zituen. Lehengo politika berdinarekin jarraitzea suposatzen zuela ikusi, eta inondik inora ez zuela etxebizitza duin baterako eskubidea bermatzen salatuz.

UPN-PSN Gobernuak aurkeztu duen Dekretua Lege honetatik abiatzen da, eta beraz, ezin du honekiko aldaketa izugarririk planteatu. Hau honela izanik, Lege honek dituen gabezia guztiak Dekretuan ere ematen dira halabeharrez: ez du etxebizitza duin baterako eskubidea bermatzen.

Hauek dira arauaren gai aipagarrienetako batzuk:

- **ETXEBIZITZA BABESTUAK AURREKONTUEN MENPE**

Etxebizitza babestuentzat eskatzen diren laguntza, nahiz errentan edo propietatean izan, aurrekontuetako diru partida zehatzari emango zaion kopuruaren menpe egongo da. Nahiz eta diru-laguntza jasotzeko baldintza guztiak bete.

- **BABES-ERREGIMENAREN IRAUPENA**
30 urteetako iraupena ezartzen zaio babes-erregimenari. Behin epe hori pasata, etxebizitza hauek modu librean saldu daitezke, eta diru-laguntza publikoarekin

egindako etxeekin espekulatu.

- **INTEGRAZIO SOZIALEKO ETXEAK**

Integrazio sozialeko etxea izateko, 15 urte baino gehiagokoa izan eta "babes-sozial gehien behar duen jendeari zuzendua" izan behar du. Kasu honetan, bai errentan hartzea eta salmenta laguntzen dira.

Etxe hauek jasotzeko bete behar diren baldintzen artean, Nafarroan gutxienez hiru urtez jarraian bizitzea dago.

Erosketarako laguntzak prezioaren %30 eta %45 artekoa izango dira, eta alokairuan %90ekoak lehen urtean eta %75ekoak bigarrenean.

- **ERABILITAKO ETXEBIZITZEN ALOKAIKURUA BULTZATZEA**

Enpresa publiko batek kudeatuko du erabilitako etxebizitzaren alokairua. Honek etxearen jabeari adostutako prezioa ordainduko dio, eta handiagoa ez den prezio batean alokatuko du erregimen babestuan. Gainera, 905 euro hilabete bako bako diru-sarrerara txikiago duten familiei %25 eta %75 arteko laguntza emango zaie.

Araudi hau egiterakoan, Nafarroako Gobernuak uko egin dio egoera aldatu eta etxebizitza arloan dagoen arazoari aurre egitea.

Gizartearen zati handi batek ez du etxe baterako sarbiderik, ezin du ordaindu, edo ez da bere beharretara egokitzen.

Arautegi berri honek ez du inolako elementurik egoera larri hau aldatuko duenik. Zentzu honetan, buelta eman eta arazo hauei aurre egiteko aukera galdu dela gaitzetsi behar da.

Gainera begi bistan geratu da, berriz, UPNren eta PSNren Gobernuarentzat eraikuntza eta

promozio enpresen interes ekonomikoek lehentasuna dutela gainontzeko gizartearen interesekin alderatuta.

Lotsagarria da Etxebizitza Kontseilariak (PSN) babesturiko etxeetako prezioaren merkatzea iragartzea prezio hauek garestiegiak direlako azken 10 urteetan %23 igo direlako, eta gero atzera egin eta ez merkatzea hala eskatu diotelako eraikuntza eta promozio enpresek. Etxebizitza arloan egiten diren politiken mailaren erakusle da hau.

Hau guztiaren aurrean, ELAk bere proposamenak planteatu ditu, Nafarroak gai honetan arautzeko duen eskumena kontutan hartuta.

1.- ESKUBIDEA ONARTZEA

Etxebizitza duin batera sarbidea izateko zailtasunak suposatzen duen arazoa ezabatu nahi bada, beharrezkoa da eskubide subjektibo hau bermatzea.

2.- ESPEKULAZIOAREN AURKA EGITEA

Nahi eta ezkoa da egoera honen aurrean espekulazioa borrokatzea. Hau da etxebizitza arloan egin existitzen diren arazo nagusietako bat.

Honen aurkako erabakirik ez hartzeak, espekulazioa bera indartzea ekartzen du, eta ontzat ematea.

3.- ALOKAIKURUKO ETXE PUBLIKOAK

Etxebizitza publiko guztiak alokairuan izan beharko lukete, eta honek hein handi batean espekulazioaren aurka ere egingo luke. Lotsagarria da diru publikoarekin egindako etxeekin negozioa egitea.

4.- GASTU PUBLIKOA HANDITU

Beharrezkoa da etxebizitza arloan gastu publikoa nabarmenki handitzea beharrian guztiei aurre egiteko.

6. PROPOSAMENA: GIZARTE ZERBITZU SISTEMA PUBLIKO, UNIBERTSAL ETA DOHAKOAREN ALDE.

Eusko Jaurlaritzak 2008ko abenduan onartutako Gizarte Zerbitzuen 12/2008 legeak, hainbat xedapen gehigarri finkatzen zituen, non epe jakin batean Gizarte Zerbitzuen Legearen aplikazioa bermatzeko hainbat elementu onartu behar ziren. Legearen arabera, 2009ko abendurako onartuta egon beharko ziren, besteak beste, Gizarte Zerbitzuen Euskal Sistemaren Prestazio eta Zerbitzuen Kartera. Karteraren funtzioa legeak onartutako eskubide subjektiboari edukia eman eta mugatzea da; hau da, zerbitzu eta prestazio ekonomiko bakoitzaren populazio hartzailea zehazten du.

2012ko otsailak 15ean Gizarte Zerbitzuen Euskal Sistemaren Prestazio eta Zerbitzu Karteraren Dekretuaren zirriborroa argitaratu zen. Zirriborro honetatik honako hauek azpimarratuko ditugu:

- Unibertsaltasun printzipioa ahultzen du

Gizarte Zerbitzuen Karterak prestazio eskubidea izateko betebeharreko hainbat baldintza ezartzen ditu. Zerbitzu eta prestazio kasu askotan baldintzak gehiegizkoak dira eta lortzen duten gauza bakarra, zerbitzu eta prestazio hauek benetan behar dituzten menpekotasundun pertsonen eskubide hori galaraztea da.

- Kopagoaren indartzea

Gizarte Zerbitzuen Karteran kopagoa indartzen da, era honetan bere erabilera beharrezkoa duten pertsonen ordaintzera behartuz. Inolaz ere zehazten ez den kopagoaren planteamentua, oso handia izatera iritsi daiteke eta baliteke pertsona erabiltzaileek beren gaitasun finantziario guztia bertara bideratu behar izatea. Ondorioz, Karteraren bitartez, dohako gizarte zerbitzu publikoa mugatzen da, kopagoa ezarriz.

- Ez da estaldura publikoa bermatzen

ELAk Gizarte Zerbitzuen Legearen balorazioa egin zuen bere momentuan. Orduan, esan genuen argi zegoela zerbitzuetan ekimen pribatua bultzatzen zela. Argi dago gizarte zerbitzuak bezalako oinarriko eskubidea, zuzenean administrazioak eskaini beharko lukeela eta berriz azpimarratu nahi dugu ekimen pribatuari malgutasun handia ematen zaiola zerbitzu publikoen eskaintzan.

- Enpresa pribatuetako langileriaren lan baldintzak ez dira arautzen.

Ez Gizarte Zerbitzuen Legeak, ezta Karteraren Proiektuak, ez dituzte arautzen enpresa pribatuetako langileriaren lan baldintzak.

Datu guzti hauek gure aldarrikapenean berresten gaitu. Menpekotasuna duten pertsonen babes emateko bide bakarra gizarte zerbitzuen sistema publiko, unibertsal eta dohako da (zerga bitartez finantzatua) beharrian guztiak bermatuz.

7. MAIATZAREN 20 ETA 26AN, MANIFESTAZIOAK MURRIZKETA AURKA

ELA, LAB, ESK, STEE-EILAS, EHNE, HIRU, CGT-LKN eta CNT sindikatuek eta 50 eragile sozial

baino gehiagok deituta, manifestazioak egingo dira Gasteiz (12:30etan Ama Zuriaren plaza) eta Bilbon (12:00etan Zabalburu) maiatzaren 20an eta Iruña (17:30etan Autobus geltokia) eta Donostian (17:30etan Bulebarra), astebete beranduago, maiatzaren 26an.

[Irakurri deitzaileen manifestua](#)